



*Europako Ikaskuntzetako jardunaldietako partaideak*

## **Europar Batasunak governantza globalari egindako ekarpena, Deustuko Unibertsitateko EBri buruzko XI. Jardunaldietan**

Martxoaren 14an eta 15ean izan ziren Europar Batasunari buruzko XI. Jardunaldiak eta helburua izan zen Europar Batasunak (EB) governantza globalari egiten dion ekarpena aztertzeke eta baloratzeko topaketa bat egitea, baita aurre egin beharreko erronkei buruzko hausnarketan laguntzea ere, sortzen ari diren faktore eta eragile berrien aurrean, baldin eta lidergoa mantentzen jarraitu

nahi badu inguru multilateral global berrian. Hizlarien artean eta jorratu zituzten arloen artean, honakoak aipatu behar dira, besteak beste: Nicolás Mariscal, Soziologia Politikoko irakaslea eta Deustuko Jean Monnet irakaslea, governantza kontzeptura hurbildu zen teoriatik; Martín Carlos Ortégak, Madrileko Unibertsitate Complutenseko Nazioarteko Zuzenbide Publikoko irakasleak, EBk governantzari egin dion ekarpena aztertu zuen bake eta segurtasun gaitan; eta Elena Peressok, Europako Batzordeko Merkataritza komisarioaren kabineteko kideak, «The role of the EU in the world economy» aztertu zuen.